

## Erakarpena

*atracción / attraction / attraction*

Edozein →hitzek, berarekin harreman sintaktikoez loturik dagoen beste hitz baten eraginaren pean jasaten duen →aldaketa morfologikoari *erakarp*en izena ematen zaio. Horrela, latinez, erakarp<sup>en</sup> bat gertatzen da, izenezko →atributuak *esse* →aditza daraman perpaus predikatzaile baten →subjektua den →erakusle →neutroa, →generoan eta →zenbakian aldarazten duenean. *Hoc est error* perpausa *Hic est error* bilakatzen da, *error* hitzaren erakarpenez *hoc* →neutroa *hic* →maskulinoa bihurtzen delarik.

*Erakarp*en paronimiko izenaz, ostera, herri-→etimologiaren fenomenoaz ezagutzen da. Horren bidez, formaz baizik erlazonaturik ez zeuden hitzei erabilera berdinak edo antzekoak ematen zaizkie. Kasu batez, zenbait euskaldunek darabilen *artoa* hitzaren →ebakera, artua alegia, Ameriketara (*h*)*artua* izateagatik heldu dela uste dute.

## Erakuslea

Erakusleek batetik eta →pertsona-→izenordeek (*ni, hi, zu...*), eta zenbait lekuzko eta denborazko adberbiok (*orain, orduan, hemen, hor, han...*) bestetik, →funtzio deiktikoa izaten dute. Honen arabera, hortaz, erakusleen interpretazio semantikoa, berorien erreferentzia mugatzea, ezinezkoa da egoera jakin baten leku-denborazko koordenatuetatik, eta bertan hizkuntzaz baliatzen diren pertsonetatik at. Eman adierazun *hau* →izenordea. Ez du honek adierazten aipatu nahi den pertsona edo gauzari datzekion ezaugarriarik, alegia, entzuleari nor edo zer den ezagutzen lagunduko dionik ezer; baizik eta erabili duen pertsonagandik zera hori hurbil samar dagoela, eta besterik ez. *Hori* delakoak, berriz, entzuten duen pertsonari buruzko hurbiltasuna adierazten du (*zu, hi*); eta *hura*-k, azkenekorik, bi mintzatzaileei buruzko urruntasuna. Gauza berbera gertatzen da *hemen, bona-hemendik, horra, hortik-hau, hara, handik* sailekin. →Erreferentziaren aldetik, kasu bakoitzean partaideei buruzko lekuaren urruntasuna ematen da. *Orain* hitzak, berriz, elkarrizketaren unea dakar gogora, eta abar.

Hizkuntza guztiek ez dute batzuren →sistema hirukuna. Euskarak, latinak,

turkierak, espainierak, eta bestek, bai. Beste batzuek, berriz (alemanierak, esate baterako), bigarren eta hirugarren pertsonen arteko →aurkakotasuna neutraldu egiten dute; eta sistema bikun bat gelditzen zaie (al. *dieser* vs. *jener*). Zenbait hizkuntzatan, berriz, hirugarren pertsonari datzekion pertsona-izenorde berezirik ez dago: latinez, grekoz, turkieraz, euskaraz, esate baterako; eta →funtzio hori, erakusleei dagokie. Bi →kategoriok daude, ordea, alemanieraz (*er* vs. *jener*, espainieraz *él*, vs. *aquél*).

Bestetik ere, erakusleen eta →artikulu →mugatuaren artean lotura estua dago; eta →fonologiaren mailan ere nabarmentzen da. Hizkuntza erromanikoen artikulu mugatua latinezko erakusleetatik dator; eta *el* eta *él* hitzen arteko desberdintasun bakarra, →azentuan datza. Alemanieraz, bide beretik, artikulu mugatuak azentua daramanean erakusle gisa erabiltzen da.

Balio deiktikoa duten hitzen →deklinabidea maiz berezi ohi da izenen deklinabidetik; alemanieraz, adibidez, bortitza deritzon deklinabideari darraizkio; eta horrixek darraizkio →adjektiboak ere, artikulu mugatuaz edo izenorde erakusleez *horniturik* ez daudenean. Grekoz, eta hinduera zaharraz bereziki, izenordeen deklinabideari darraio gutxi gorabehera balio erreferentzial-deiktiboa duten adjektibo-sail luze bat.

→Sintaxiari gagozkiolarik, berriz, IS kategoriaren barruan sartzen dira izenordeak, izen →propioak bezala; baina, hauek ez bezala, izen erkideekin elkartzen den mugatzaile-mota berezi gisa erabiltzen dira.

J. L. Iturriz  
Itz.: Txillardegia

## Eranslea

*aglutinante / agglutinant / agglutinating*

Eransketaren berezitasun estrukturala duten hizkuntzak, hizkuntza eransleak dira, hau da, erlazio gramatikalak adierazteko, →erroaren atzean →hizki desberdinak pila-tzen dituzten hizkuntzak. Adibidez, *turkieraz, -ler* →plurala markatzen duen →atzizkitik eta *-i* →posesiboa markatzen duenetik, *ev* «etxea» erroarekin →hitz hauek egingo